



berriak

OSAKIDETZA

2015/10/01

MOSKOSOA

Eusko Jaurlaritzak 2012an lapurtutako azken moskosoa bueltatzeko Instrukzioa argitaratu du. Espainiako Gobernuak inposatu behar izan du itzulketa hau. Oraindik ez daukagu deialdirik aparteko ordainsaria bueltatzeko ezta kanosoak itzultzeko ere. Ez al zituzten eskubideak kendu Madrilek inposatzen zuelako? Ba berehala itzul ditzatela.

Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuaren Agindua garatzen duen Instrukzioa argitaratu du, honen bitartez 2012an lapurtutako azken moskosoa bueltatu digute.

Gobernuak egun hau 2015eko irailaren 12tik (Ze zinikoak diren!) eta 2017ko urtarrilaren 7 artean eskatu ahal izango dela erabaki du.

Egun hau jadanik eska daiteke, ondorioz, inongo Zuzendaritzak ez luke arazorik jarri beharko eskubide hau egikaritzeko. Eguna eskatu nahi duenak dagokion izapidea bete behar du.

Hala ere, Gobernuak oraindik ez du argitu aparteko ordainsiarekin eta kanosoekin zer egin behar duen.

Eskubide horiek kendu zituztenean estatuko oinarrizko legedia izan zen aitzakia hemen ere murrizketak aplikatzeko. Jadanik ez dute legezko arazorik, baina ez dituzte eskubideak bueltatzen.

Argi dago Gobernu hau gustura egon dela Madrileko aitzakiarekin, eta orain ez du inolako presarik beraiek murrizketekin ados zeudelako. Ez ditugu bakean utziko dagozkigun eskubide guztiak bueltatu arte.

LAPURRETA GEHIAGORIK EZ!!

